

Noqua!!

H A M A B O S K A R A

2002ko apirilaren 5a VII.urtea

Usurbil, 133. zenbakia



**Baserria desagertzeko
zorian**

USURBI L

GIDARI-ESKOLA



%20ko deskontua matrikulan!

MATRIKULA ZAITEZ!

Kale nagusia, 5

Telf: 943 36 27 93 - 651 70 37 71

SETABU TAILERRAK, S.M.

ERREMENTARITZA-GALDARAGINTZA



✕ SOLDADURA

✕ BURDINEZKO ATEAK

✕ BURDIN SAREAK

✕ PLANOTIK EGINDAKO

PIEZAK

**Eskatu aurrekontua
konpromezurik gabe**

Ugarte industrialdea, 7 Pabiloia
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

TELF: 943 36 08 48
FAXA: 943 37 24 67



UDALBILTZA

HEMEN DA EUSKAL HERRIKO NAZIOTASUN AITORMENA

Mundu zabalean herri askeek egiten duten bezala, euskaldunok ere gure naziotasuna aitortu nahi dugu.

Herri guztiek dute erabakiak askatasunez hartzeko eskubidea eta beren egitura politikoa eta beren ekonomia, gizartea eta kultura askatasunez garatzeko. Gizaki guztiek naziotasuna izateko eskubidea dute.

Inori ezin zaio naziotasuna ukatu edo naziotasuna aldatzeko eskubidea kendu. Euskal herritarrek garen heinean naturaltasun guztiarekin garena aitortu nahi dugu munduaren aurrean.

Euskal Herriko Udal eta Udal Hautetsien Biltzarrak - UDALBILTZAK - Batzar Orokorrean Euskal Herriko Naziotasun Aitormena bideratzeko konpromisoa hartu zuen.

Herritarrek beren naziotasuna aitortu dezaten, Udalbiltzak Euskal Herriko Naziotasunaren Aitormena egiteko inprimakiak Bai Euskal Herriari taldearen esku jarri ditu jadanik.

**Bai Euskal Herriari Taldean LARUNBATERO
GOIZKO 11:00etatik 11:00etara UDAL PLANO
ARETOAN EGONGO DA EDOZEIN ZALANTZA
HERRITARREI ARDITZKO.**

**KARNETA EGITEKO AURKEZTU BEHARREKO
DOKUMENTAZIOA:**

Errolda agiria, 3 argazki eta ordain agiria

HEMEN DA

EUSKAL HERRIKO NAZIOTASUN AITORMENA



Txerrimunik ordainetan



Zorionak **Joxean eta Haritz!**

Zorionak osaba-ilo-
bel. Joxean eta Haritz,
apirilaren 1ean
eta 3an 30 eta 3 urte
betetzeagatik, etxe-
koen partez.



Zorionak **Joseba!**

Apirilaren 5ean Jose-
ba Undianok 15 urte
beteko ditu. Orain
bezain jatorra izaten
jarraitu ezazu. Zorio-
nak! eta egun on-
ona pasa.
Etxekoak.



Zorionak **Zalao!**

Hire urtebetetze
eguna dela eta,
hire gonbidapena-
ren zain geratzen
gaitun...
Egun ona pasa!



Zorionak **Aloña!**

Gure neskatxak
dagoeneko 18
urte bete ditu.
Zorionak eta
muxu haundi
bat etxekoan
partez!

Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota tituluren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tarte hau erabili dezakete. Ekarri beharrekoa, testua eta argazkia.

Hurrengo alea: Apirilak 19.

Ekarzeko azken eguna: apirilak 12.

Hildakoak

Maria Martinez de Ilarduya

2002-III-12

Kalezar

Francisco Landa Garmendia

2002-III-21

Santuenea

Bai, esan?

- Udala 37 19 51
- Udaltzaingoa 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak 37 01 48
- Anbulategia 36 20 13
- Udarregi ikastola 36 12 16
- Udarregi (Kalezar) 36 45 00
- Agerialde ikastetxea 36 38 95
- Oiarde kiroldegia 37 24 98
- Zumarte 37 15 94
- Etumeta 37 20 01
- Taxi geltokia 36 21 78
- D.Y.A. 46 46 22
- Ertzaintza 112
- Suhiltzaileak 112
- Larrialdiak 112
- Anbulantziak 112
- Posta Kutxa 36 28 49
- Gure Pakea 37 32 28
- Gure Elkarteak 37 17 51
- Arrate egoitza 36 63 40
- Eusko Tren 47 09 76
- Noaua! aldizkaria 36 03 21
- BaKe epaitegia 37 23 36
- Oa farmazia 36 12 17
- Iturralde farmazia 36 33 95
- Zubietako Herri Batzarra 37 20 77
- Argindarra (Iberduero) 47 09 76

Apirila							
Astel.	Asteaz.	Asteaz.	Osteg.	Ostira.	Larun.	Igand.	
1	2	3	4	5	6	7	
8	9	10	11	12	13	14	
15	16	17	18	19	20	21	
22	23	24	25	26	27	28	
29	30						

● Hurrengo alea

Udaltzaingoa ordutegia

Astegunetan

6.00/22.00

Asteburu eta jaiegunetan

7.00/22.00

Gainontzeko orduak telefonoz.

Atea itxita aurkitzen baduzu
deitu telefono honetara

943-361112

Noaua! aldizkaria
Bordaberri, 3
Usurbil
noaua.k.e@euskalnet.net

**Kexaren bat
baduzu, kritika-
ren bat eskuar-
tean badabilkizu edo eta herri-
ko zerbaitez hitz egin nahi
baduzu guk ikamikan toki bat
egingo dizuegu.**

Eskutitzak izengoiti batekin
sinatu daitezke, baina Noaua!n
argitara emateko guk zuen
izen-abizenak jakitea ezinbes-
tekoa da. Testuak 2000 karakte-
re baino gutxiago izan beharko
ditu.

Eskutitz horiek Noaua! Kultur
Elkartearen egoitzara eraman
edo postaz bidali besterik ez
duzue egin behar.

3er irizten?



Argitaratzailea

Noaua! Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02
E-mail: noaua.k.e@euskalnet.net
Web orria:
<http://www.jalgi.com/topagunea/noaua>

Kazetarien koordinatzailea

Imanol Ubeda

Kazetariak

Imanol Ubeda, Amagoia Mujika eta
Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea

Agurtzane Solaberrieta

Zuzentzailea

Eneko Harreguy

Kolaboratzaileak

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zaloe Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbiet, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti.

Bazkidetza

Aitziber Aranberri

Erredakzio Kontseilua:

Imanol Ubeda, Amagoia Mujika,
Garikoitz Udabe, Zaloe Arnaiz eta
Agurtzane Solaberrieta.

Informatika

Pili Lizaso eta Oskar Angulo

Banaketa

Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta
Kerman Errekondo

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

AZALA

Ikerketa baten arabera, baserria desagertzeko zorian dago epe laburrean.



Beste bat!

Aitor Landaluze Intsumitua

Antimilitarismoak, urte-etako borrokaren bidez, ejertzitoari tanto bat irabazi dio. Gazteok estatuen umilazioa den umilazioari uko egin genion. Aurrena objezioak eta ondoren intsumisioak, ejertzitoa kolokan jarri eta beren arma garrantzitsuenetarikoa bat kendu diogu, soldaduska: populazioaren kontrola, ideologizazioa, heziketa... Dagoeneko ez gaituzte banan bana hartzen, gure mundutik atera eta beraien kuarteletan uniformatzen.

Irabazi dugu, gaur egungo gazteak askeagoak gara, hilabete batzuk bederen. Gainera intsumisioak kutxu antimilitarista bat zabaldu du, garai batean Lemoizek kutxu ekologista zabaldu zuen bezala.

Intsumisioa, antimilitarismoak erabilitako lanabesa izan da, eraso bezain erantzun garbia. Agindutakoari kasurik ez, desobedientzia. Ez dugu guk asmatu, hementxe zegoen, oraindik ere hemen dago. Guk, hartu eta irudimenaz pintatu (nire lagun batek pintatu esango zukeen) genuen eta zintzoki, herritar pila bat bildu. Baliagarria izan zaigu oso eta beste borroken pinturaren zain dagoela irudi-

tzen zait.

Bitartean ejertzitoa bera erantzunak egokituz joan da, orain, gobernuaren bidez zigorrak ezabatuko dituztela esan dute, derrigorrezko soldaduska kendu diegu. Hala ere, beste nonbaitetik irabaziko dute, hor daude, Mungian, Berriozarren, Bardeetan... oraindik ere agintzen dute, gure ondasunak xahutzen dituzte, inposatzen dute, erahil, torturatu, bortxatu, bonbardeatu... oraindik ez dugu militaristen aske den herria, baina sikiera ez dugu parte zuzena kaka horretan.

Horregatik antimilitarismoak ere intsumisioa gainditu behar du, beste maila bat igo behar du harmailetan. Orain jopuntua hain bateragarria ez den arren; soldaduska izan den bezala, errealitatea hor dago, Euskal Herrian gerran dauden herrietarako armak egiten dira, beharrezko gauzetarako baino ejertzitorako bideratzen dira diru mordoak... antimilitarismoaren helburua hor darrai, ez da mugitu, eraldatu da.


Egun, antimilitarismoa horretan dago, partaide gutxiagorekin, hain bateragarriak ez diren beste urrats horiek argituz, eraso ere ez delako hain ikusgarria.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



Ebaristo Pikabea

Musikarako joera betidanik izan duela aitortu digu Ebaristo Pikabeak. Dena den, bertsoa da orain bere afizio nagusia. Zazpi herrialdeen arteko topaketan kantari aritzeko gonbitea egin diote eta ilusioz hartu du eskaintza.



Usurbilgoa zara baina Lasarte-Orian bizi zara orain, ezta?

Aginagakoa naiz. Aginagatik kilometro batera bazen Bar Pikabea. Espaldiberri esaten zaiona, orain itxita dago. Gasolina pasa eta bertan. Gure anai gazteena hor bizi da. Ni naiz zaharrena, baina orain Lasarte-Orian bizi naiz, Txitxardin Beltzaren parean. Petrizia baserria, ordea, Zubietan daukat. Bi behi eta bi txekor ditut. Udarari piper batzuk jartzen ditut, lehengo urtean 3.000 jarri nituen eta aurrekoan gehiago.

Jubilatuta zaude orain baina zein izan da zure lanbidea?

Ni ofizioz herreroa naiz. Luzuriagan ibili ginen bost urtez, han ikasi nuen soldeatzen. Gero, Luzuriagatik atera eta Michelinen sartu nintzenean Antiguara joaten nintzen herreroarena, han egiten nituen beste lau ordu. Orduan ez genuen baserririk. Burnizko bi ala egin nituen neronek Aginagan anguletarako. Esan nion Patxi Mapilli *ala egin nahi nuke burnizkoa, soldeatzen bazekit*. "Soldeatzen baldin badakik, ez daukak besteren beharrik!" Harrek zeuzkan plantilekin egin genuen. 6 urtera usteldu egin zen, txapa segituan hondatzen baita. Protekzioa eman behar zaio.

Bigarrena egin nuenean Zumaiara eraman genuen kamioi batean eta dena galbanizatu egin genuen.

Kolpe batzuk atera zitzaizkion eta han aritu ginen egurra tako batzuekin zuzentzen. Oraindik primeran dago.

Bertsotzasuna nondik datorkizu?

Txikitari musikarako izugarritzko afizioa genuen, oso mutil koxkorak ginenean. Espaldiberrin, oilasko bil-tzaileen festan, soinu aditzen gustura egoten ginen.

Hurrengo egunetan, etxeko paretan ziri bat sartu, zinka zahar bat jarri eta jazzmanaren imitazioa egiten

genuen. Bertsotarako afizio hau gaztetan ez nuen baina gero ere ganadu-lanekin askotan joaten nintzen Bar Pikabea. San Praixkutan gure lehengusak etortzen zirenean kantu ederrak abesten zituzten. Guri ere abesteko gogo sortu zitzaigun. Bertsolaritzan 96an hasi nintzen, Auzoko Felixiano Etxeberriarekin. Nik puntua jarri eta berak erantzun; berak puntua jarri eta nik erantzun. Egunetik egunera afizio gehiago hartu nuen; boligrafoa hartu eta harrezkero zenbat koaderno txiki dauzkaten baserrian idatziak! Handik gutxira moralki indarra hartzen hasi nintzen. Nik pentsatzen nuen nik dakiten hau bota egin behar diat. Herrira bertso afarira etortzen ziren Egaña eta Lizaso eta nik demostratzeko gogo nuen. Herriak estimatu egiten zituen, bertsolariak ere zirika hasten ziren eta nik orain oso lagunak ditut. Orduetik bertso-eskolara ere joaten naiz.

Apirilaren 21ean kantari arituko da pilotalekuan

Apirilaren 21ean "Elkartasuna... etorkizuna" lemapean egingo den festan, Ebaristo Pikabea bertsoari arituko da. Berarekin batera taula gainean izango da Luzaideko Anjel Antziburu bertsolaria. Egun hori gai hartuta, hona hemen Ebaristok idatzitako bertsoa:

*"Zazpi probintzi gera euskarak
bildutzen gaitun fruituak
jarri ditzagun bat eginikan
emen indar berrituak
gure izkuntzak ez du mantxarrik
hartu ditzaten kontuak
zazpiok bate geralea beti
izan daitez onartuak"*

ERRAZKIN

Igeltseritza orokorra

Kale Nagusia, 1
Telf: 943 37 26 79 eta 36 51 25
Santufenea Mob: 629 42 05 65



MAHUKA

Gizon eta emakumezkoen
modako arropa guztia hemen aurkituko

Etxebeste kalea, 3- tlf. 943 36 11 06

IGELTSERITZA

URDANTZI, C.B.

Mugikorra: 649435475
649435476

☎ 943 363370- 361439

SANTUENEA

Isaak Muñoz



Gas naturalaren zain

Azkenean iristen ari da aspaldian itxaroten ari ginen gas naturala. Makinek, auzoko espaloi, bide eta abar puskatzen ari diren arren, badakigu merezi izango duela auzotar askorentzat. Trafikoa eta aparkalekuak dexente oztopatzen duten arren, nahiko azkar egiten ari direla ematen du, niretzat behintzat.

Orain dela urte batzuk, gasentzako hodi orokorra sartu zutenean, ez genuen uste hainbetse denbora pasako zenik. Denbora pasa da eta orain gas naturalarekin, auzotarren bizimodua aldatu-ko da. Sistema berri honekin erosotasun gehiago izango ditugu. Badakigu denoi zer

amorrurik ematen digun dutxan sartuta gaudenean eta ur hotza etortzen denean, butanoa aldatzera irten beharra edo lehenbailehen bukatu beharrean izaten gara. Edota butano banatzailerari itxaron behar diogunean. Arazo txiki hauei askotan ez diogu ia garrantziarik ematen, baina horrelako arazo txikiak egiten ditu bizitzaren kalitatea hobetuz edota txarragoa izatea. Hemendik urte batzuetara butano kontu hauek zaharrak egingo

dira beste zenbait gauzak bezalaxe.

Bitartean, makina eta soinu ugari entzun beharko ditugu gasaren instalazioak bukatu arte behintzat.



URDAIAGA

Eider Jauregi



A zer parajeak

Udaberrian sartu berri garen honetan, hemen nator berriz ere auzo txiki honetako gertakariak zuenganatzera. Azken egun hauetan eguraldi bikainaz gozatzeko aukera izan dugunez, asko eta asko izan dira inguru honetara paseatzera hurbildu direnak.

Nik neronek ere aspaldi ez nuela egin eta Andatzari pistaz buelta ematea erabaki nuen. Buelta ematen nindoala bigarren erreka igaro ondoren, bada pinudia aterata dagoen zati handi bat eta bertatik begira jarri eta alde batetik Donostiako irla ikusten nuen eta bestaldean berriz Getariako arratoia.

Nire baitan pentsatu nuen orduan zein txikia den Euskal Herria. Mapa batean begira jartzen garenean, batetik bestera zenbat kilometro dauden jarduten gara baina honelako leku batetik begira jarri eta bi gune hauek batera ikustea zoragarria da. Lehen pinudia zegoenean ez zen honelako paisajerik aurkitzen, pinu artetik zerbaitek ikusteko gai nintzen baina lehengoan ikusi nuenak ez du zerikusirik pinudia zegoen garaierekin.

Badirudi eguraldi iragarpena oso ona dela datozen egunetarako,

beraz, nik gonbidapena egiten dizuet inguru hauek bisitatzeko. Bertan berriro ere pinuak landatu dituztenez, urte gutxiren buruan berriro ere guztiz estalia egongo baita. Badakizue paraje zoragarri hau ikusteko mendira bueltatxo bat, eta kitto!



KALEZAR

Andoni Udabe



Nagiak kentzen

Udaberria iristearekin batera, denok gabilitza pixka bat aztoratuta, eguraldi onak hasi dira (ea luzaro irauten duen), eguna poliki-poliki luzatzen doa eta argi ordu gehiago eskaintzen dizkigu. Arrazoi hauek aitzakiatzat hartuta, nire iritziz apalean oinarrituz, dagokidan tarte hau betetzeko, proposamen batzuk helerazi nahi dizkizuet denbora libre betetzeko.

Oinez nahiz bizikletaz egiteko ibilbide ugari daude: taldeka, bakarka, txakurrarekin, amaginarrebarekin... Neurria norberak bilatu behar dio. Fisikoki ondo dagoenak bizikleta hartu eta gure auzotik barrena, Arra-

tzaindik pasatuz Polipaso edota Oria-Benta eta Kukuarri aldera egin dezake buelta. Indarrez bilatzen bada lbaetaraino jeitsi eta "Mortirolo" gora igeldo aldera igo daiteke. Kukuarrira oinez joa eta ere ez da buelta txarra, txakolin bat edan, pintxo bat hartu Oriobentan eta konpleto!

Beste aukera batzuk, Arratzaindik barrena Agina eta Kanpotz aldera jaitsiz osa daiteke. Auzo eta herriko baserri ugari ikusteko aukera eskaintzen dute bi ibilbide hauek. Bordatxora ere igo daiteke, baina ez xapatila zuriekin, ah eta kontuz hankak depilatuta berri badauzkazue ote festa

handi xamarra omen dabil goialde horretan!

Natura, mendia, kirola, atsegin badiuzue aukera politak direla irizten diot. Paisaje ezin-hobeekin gozatuz eguraldia lagun bada. Besterik gabe, oportxo hauek benetan goza ditzazuela opa nahi dizuet eta bidenabar jendea animatu mendian ibiltzera.

Azkenik, gogoratu, Andatza mendi elkarteak hilero antolatzen duela irtenaldiren bat. Esan beharrik ez dago denok gonbidatuak zaudetela parte hartzera.

Mendizaleok mendira!

ATXEGALDE

Amagoia Mujika



Harategia zena orain autoserbitzua

Nik egindako ahaleginagatik, behinik behin, ez da biziberrituko gure txokoa. Lana denean lana delako eta opor sasoiaren kanpoalderako joera guztiok dugulako, apenas ikus dezaket Atxegalde eguzkiaren argitan eta, ondorioz, apenas kontatzen dezaket kontatzeko modurik, gauak bere-berea baitu debekatuaren usaina. Katuak ere gauez baino ez dira ausartzen auzoko zabor artean saltsan ibiltzera. Norbait, oster, ari da auzoari bizia ematen, sikiera itxuraz ez bada ere. Aspaldian behealde horretara jaitsi gabea nintzen eta "Alkorta Harategia", "Alkorta Autoserbitzua" bihurtu dela jakitea kontatzeko moduko iruditzen zait. Toldo zuri-gorri dotorea jarri diote kanpoaldean eta barrualdean, berriz, aspalditik zetorkion aldaketak dirau. Pixka-

naka denetik bilatzeko modua eskaini digu Alkortak, haragiaz gain beste hamaika elikagai eta baita ahora eramatekoak ez direnak ere. Baina hori baino garrantzitsuagoa iruditzen zait Alkortanea auzotarren biltoki inportantea dela nabarmen-tzea. Mari Pazek denda zu!

Enean, gauza jakina zen auzotar askok, arratsaldeko ogia erostearen aitzakian, orduak eta orduak ematen zituela mostadoreari pegatuta, honako eta halako kontatuz eta entzunaz. Lolik ere bazuen bere denda-txoa, beste askoren bilgune gozo. Hauek biak itxita Alkortak eskaintzen du auzoarekiko gertuago



edo sentitzeko parada. Lehenago ere kanporako joera nabarmena baitugu guztiok, Atxegaldeko plazak inoiz baino ume gutxiago ezagutzen ditu egun seguruen. Baina egia osoa esanda, ogi bila joan eta ordu erdi galtzeko inork gutxi du gaur egungo gizartean, edo inork gu- txik izan nahi ote du?

TXOKOALDE

Eukene Kamino



Gazte ugari Berriolan

Niri jarri zitzaidan niri memela aurpegia lñakik idatzitako kronikaren bitartez auzoko Erroizpe elkarteko batzar orokorra jada otsailean ospatua izan zela jakitean! Egin zen bilera horretan jende gutxi bildu zela eta, aurretzean batzarretara azaltzen ez den bazkideari isuna ezartzea erabaki omen zen. Nik, bertako bazkide naizen gisan, erabaki hau arinegi hartutakoa dela diot, ze nola azalduko gara inungo batzarretara honen berri ez badugu? Ez al da bidezkoagoa lehenbizi karta baten bitartez bazkide bakoitzari berri ematea, gero jendearen partaidetza ikusi eta azkenik hartu behar diren neurriak hartu?

Aurreko alean lmanolek aipatzen zuen bezala, Akerra gazte-txea majo margotu dute gazte

hauek Karlos Zabala "semea" gidari dutela. Ni barrura sartzera gonbidatu naute bertako margolana ikus dezadan eta beneran oso bitxia eta polita dagoela aipatu behar dut, barru osoa urpekuntzi (submarino) bat izango balitz bezala margotua baitago. Bertako gazte baten esanetan, erreskatatu zain dagoen hondoratutako urpekuntzi bat da hau.

Berriola erregulatzailentzako eta makina-erremintarentzako motore elektrikoak egiten dituen lantegia dugu. Lana asko ugaritu zaienez, gazte berri asko hasi da bertan lanean, eta toki eskasa geratu zaienez lanerako aurrera eta bi albotara handitzen ari dira edifi-

zioa, honetarako 20 milioi pezetako aurrekontua dute (120.202,42 euro).

Berriolak Usurbilen Atallu poligonoan ere eresia du lurra denborarekin bertan lantegi berri bat eraiki ahal izateko, Txoko Alde nahiko auzo aldrebesa baita kamioi handiak aurrera eta atzera ibiltzeko.



KALEBERRI

Ines Kamino



Jai batzordea martxan da

Berriro hemen gara, aldizkari batetik bestera zailtasun gehiagorekin, izan ere, askotan Kaleberrin zer esan askorik ez baita izaten.

Hala ere, oraingo honetan herriko festak izango ditut mintzagai. Izan ere, festak urruti badaude ere, hilabete batzuk badira jai batzordea biltzen hasi zela. Azken urte hauekin alderatuz, herritar dezente animatu da aurten antolaketa lanetan jarduteko. Giro ederra izaten da bileretan, baina betiko arazoa: di- txosozko dirua.

Guztiok ahalik eta ekitaldi onena antolatu nahi izaten dugu, baina honek kostua du, eta urtetik urtera, gainera, gau-

zak garestituz doaz. Bizitza garestituz doa, eta honek festak antolatzerako orduan, buruko min ugari ematen ditu; izan ere, udalak festetarako bideratzen duen aurrekontua ezer gutxi aldatu delako azken urte hauetan.

Hala ere, aurtengoan izan da igoerarik, txikia izan bada ere (guztia esan beharra dago, hots, igoera, baina txikia). Baina, betikoa, ez da guztientzako iristen.

Horrek tirabirak sortzen ditu jai batzordeko kideon artean, baina azken bileran irtenbide batera iritsi ginen, guztiok planteatu ditugun ekitaldiak aurrera ateratzeko; bakoitzak bere

aurrekontua zertxobait jaitsi.

Gezurra badirudi ere, jai batzordean urte dezente dabilen kideen esanetan, mirari baten antzekoa izan da, edo bestela Nikori, kultura zinegotziari, galdetu!

Kontuak kontu, oraindik ez dira antolaketa lanak bukatu. Baina, nire iritziz, festa onak izango dira aurtengoan, berrikuntza bat baino gehiagorekin, gainera.

Hurrengo bilera apirilaren 11ean izango da, arratsaldeko 20:00etan pleno aretoan. Beraz, gustuko baduzue, azaldu besterik ez duzue, ea guztion artean festa atseginagoak antolatzen ditugun.

AGINAGA

Oskar Santamaria



Betikiko kontuekin

Egun hauetan herrian darabilzkigun berriak, batez ere Noaualn azken aleetan agerturiko gutun pare baten bitartez, izugarrizko esamesak sortu dizkigute, hau dela eta, Jai Batzordeak zer esana ba omen du, ondorioz, ea hurrengo alerako eskutitz bat idazten den Aginagako sarrerako kartelari buruz, baita beste konturen bati buruz ere bai.

Hala ere, kexuak ere baditugu esateko, adibidez, Etxebes-teko sarrera penagarri dago eta hortik egin beharra dagoenez, orain plazarako sarrera-irteera, kotxeen azpiak bertan uzten ari gara, ea ba Udalak zerbait egiterik duen...



Azkenik, esan Aginagan semaforoak ditugunetik (tuberi berriaren obrarengatik) denok ere metxero berdinare-

kin gabiltzala Aginaga aldean, bertan metxero saltzen dabilzan Rumonoli erosita. Hurrengo alerarte!

ZUBIETA

Xabier Arregi



Pottokak Zubietako mendietan

Zubietar batek bere pottokak libre utzi nahi lituzke Zubietako mendian. Horixe da Herri-Batzarrari egin dion proposamena, eta halaxe zabaldu nahi dugu txoko honetatik.

Herri-Batzarrak ontzat hartu du asmo hori. Pottokek mendia garbitu egingo dutela iruditzen zaigu, eta Zubietako mendiak

badu garbitzeko premia. Gainera, merezi du bertako arrazak iraunarazteko ahalegina egitea.

Horretarako premiazkoa da erabiliko den mendi-saila behar bezala ixtea. Bideetan parrilla egokiak jarri beharko dira, eta inguru batzuk hesitu egin beharko dira. Zubietan mendi publikorik ez denez, jabe baten baino gehiagoren lurrak hartuko lituzke sail horrek.

Antzeko egitasmoak jarri dira martxan beste paraje batzuetan ere. Agidanean, Oartzungo udalak 13 hektareako sail bat itxi du pottokak jartze-

ko, eta sail horretan bestelako zaldirik ez du onartu arrazak ez nahasteko.

Kontua da, hala ere, horrelako egitasmoek adostasun zabal behar dutela. Horregatik jakin nahiko genuke ea zer iritziz duten herritarrek eta lur-jabeek proposamen honi buruz. Izango dira, noski, aldeko eta kontrako arrazoiak. Izango da zer argitua. Beraz, aurrera egin baino lehen, bilera bat egin nahi dugu.

Deia zabala da: interesa duen edonor dago gonbidatua datorren **apirilaren 13an goizeko 11etan egingo dugun bilkurara**. Zubietako udaletxean elkartzeko gara, **Alamandegin**.



Urbil euskalduntzeko ahaleginean jarraitzen du udalak

1 999ean sinatu zen Eroskirekin hitzarmen ekonomikoa baina bestelako akordioak ere lortu ziren: kultura sustatzeko dirulaguntza, esate baterako. Maiatzean bi urte beteko dira Urbil zabaldu zenetik. Orain, ordea, gune berri hau euskalduntzea da udalaren kezka nagusietako bat. Koldo Lizaso zinegotziaren ustez, hitzetatik ekintzetara igarotzeko unea iritsi da.

Urbilen euskarak duen presentziaz kezkatuta, Eroskirengana jo duzue konpromiso eske, ezta?

Hasiera batean ez zegoen inongo plangintzarik. Horregatik, diagnosi bat egitea eskatu genuen: galerietakoa eta hipermerkata zein gasolindegikoa. Gero Eroskik galeriak Lar taldeari saldu zizkion. Hiperreko diagnostikoa 2001ko uztailaren amaierarako egin zuten, eta galerietakoa 2001eko irailera. Honen ondotik, plangintza bat eskatu genuen euskarak Urbilen merezi duen lekua ziurtatu ahal izateko. Eroskik plan bat aurkeztu zigun hiperrari eta gasolindegia begira. Plan geldoa iruditu zitzaigun, hainbat atal ez zituen jasotzen eta plan hori atzera bota genuen. Urte askotarako plan luzea zen eta hutsune asko zituen.

Nola daude gauzak oraintxe bertan?

Plan berri bat aurkeztu digute baina honek ere baditu hutsune batzuk: hainbat ekintza zehazten dira baina horiek gauzatzeko baliabideak ez dira aipatzen.

Guk 2004. urterako euskara ziurtatu ahal izateko plangintza eskatu diegu: paisai linguistikoan, harremanetan, idatzietan... Duela gutxi



Euskararen presentzia ziurtatu nahi da Urbilen.

Eroskiko zuzendaritzarekin bildu ginen eta Eroskik duen erantzukizuna gogorazi genien; hiru urteren buruan euskararen normalizazioa ziurtatu behar dutela.

Urbil euskalduntzea oso garrantzitsutzat jotzen dugu egunero 10.000 pertsona igarotzen baitira. Gure udalerrian dagoenez, eragin beharra dugu.

Kale erabileraren datuak ezagutu berri ditugu. Zein da udalak egiten duen irakurketa?

Datu horien arabera ekintza-plan bat zehaztu beharko dugu. Ardatz konkretu batzuk finkatu beharko ditugu, beraz, zer egin eta nola egin pentsatzen hasteko unea da.

Bestetik, azterketa soziolinguistikoa bat ere egiteko asmoa dugu. Oinarriak prestatzen hasi gara, beraz, laster jarriko da martxan. Ezagutza, erabilpena, hizkuntzaren presentzia, alfabetatze-maila... eta antzeko datuak eskuratuko ditugu azterketa honi esker.

► Udalak lau langile kontratatuko ditu

Udalak lau langile kontratatzeko deialdia luzatu berri du. Hauek dira bete nahi diren lanpostuak: festetarako bi peoi, lorazain laguntzaile bat eta elektrikari laguntzaile bat. Kontratua behin behinekoa izango da, lau hilabetekoa hain zuzen.

Langileen izendapenak opo-saketa bidez egingo dira. Peoiak eta lorazain laguntzailea, E taldea eta 6. mailarekin; elektrikari laguntzailea D taldea eta 9. mailarekin.

Elektrikari laguntzaile lanposturako elektrikari titulua eta B-1 gida baimena eskatzen dira. Xehetasun gehiago oinarrietan topatuko dituzue, Udaletxeko idazkaritzan. Hala nola, interesatuak dauden guztiak bertara hurbildu daitezke.

Eskaerak aurkezteko azken eguna apirilaren 20a izango da, eguerdiko ordubatean.

► Iazko aurrekontuaren likidazioa onartu da

Martxoaren 26ko udalbatzak 2001eko udaleko aurrekontuaren likidazioa edo kitapena onartu zuen. Udal kon-tuhartzaileak osatu zuen likidazioaren txostena aztertu ostean hartu zen erabaki hau. Honekin batera, 2001. urtean hasi eta aurten amaituko diren inbertsio zehatzetarako 54.380.239 pezetako kredituak txertatzea onartu da, kopuru bera altxortegi gero-kinaren bidez finantzatuz.

Indarrean dagoen araudiari jarraiki, udalbatzak hartutako erabaki hau Gipuzkoako Foru Aldundiari jakinaraziko zaio.

JOSUE
ARANZAZISTROKI

**IGELTSERITZA
eta
PINTURA**

Juan Jose enea, 6 Telf: 943 36 05 50
Kalezar 606 37 21 05

Kalkos kopisteria

- ✍ Fotokopiak
- ✍ Fotokopiak koloretan
- ✍ Plastifikazioak (DIN A2 arte)
- ✍ Fax zerbitzua (jaso eta bidaltzeko)
- ✍ Planoen kopiak (AO arte)
- ✍ Ordenadoreko lanak
- ✍ Enkuadraketak (wire-o, kiribilak, liburua)
- ✍ Zure argazkia puzzle batean

Juan de Garay kalea
20160 Lasarte-Oria

Telf: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55

ITURGINTZA

**JOSEBA
ARANGUREN**

Telf: 943 83 00 72

2002ko zergen egutegia zehaztu du Udalak

Udalak 2002. urterako udal-zerga egutegia zehaztu zuen azken udalbatzan. Beraz, zerga desberdinak ordaintzeko epeak ondorengoak izango dira.

-Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zerga (2002): apirilaren 1etik ekainaren 15era. Epearen erdian, maiatzaren 2an, interesatuen kontu korrontean kargatuko dira domiziliatu edo helbideratutakoak.

-O.H.Z. (Ondasun Higiezin Zerga -kontribuzioa-, Landa eta Hiri Izaerakoak, 2002): maiatzaren 15etik uztailaren 4ra. Helbideratutako zergak uztailaren 1ean kargatuko dira zergadunaren kontu korrontean.

-E.J.Z. (Ekonomi Jarduera Zerga, 2002): urriaren 1etik azaroaren 10era bitartekoa. Epearen erdialdean kargatuko lirateke helbideratuta dauden agiriak interesatuen kontu korrontean.

-Espaloian Zehar Ibilgailuak Sartzea(Badoa) (2002): urriaren 1etik urriaren 30era bitartean. Epearen aurreneko egunean kobratuko lirateke helbideratuta dauden agiriak.

-Ura, Estolderia Eta Zaborra: Hiruhilabetero.

Ura, zaborra eta estolderiaren erroldaldetako helbideratutako agiriak epearen aurreneko egunean kobratuko lirateke.

Errolda fiskalek biltzen dituzten agiriak, likidazioak ez direnez,



Ibilgailuen zerga ordaintzeko epea ekainaren 15ean amaituko da.

agiriak kolektiboki jakinaraziko dira eta komunikazio giza udalak agiriak zergadunaren helbide fiskalera bidaliko ditu borondatezko epea irekitzen den egunean. Obra baimenaren zergak, Jarduera irekiera zerga...

Gobernu batzordeak hartutako erabakiarekin batera, dagoen kitapen edo likidazioa jakinaraziko da zergadunaren helbide fiskalera, bertan adierazten den epean ordainketa egin dezan interesatuak.

Adierazitako epe hori bukatu ondoren eta zergadunak zerga ordaindu ez duen kasuan, premiamendu bidezko jardubideari ekingo zaio: ordaindu ez diren kuotek %20ko gainkargua, berandutza interesak eta dagozkion gastuak hartu behariko dituztelarik bere gain.

Ezinduentzako etxeak ez dira zozketatuko

Artzabalgo etxeen zozketak egin ziren baina zehazteko geratu ziren ezinduentzako etxebizitzak esleipenak. Azkenean, Eusko Jaurlaritzaren araudiari jarraiki, etxeen adjudikazioak ez dira zozketa bidez egingo baizik eta ezinduen mugikortasunaren arabera. Beraz, lehentasuna gurgil-aulkidunek izango dute eta hauen ondotik makuludunek.


Kale-izen-degi berria banatzen hasi dira

Nekar enpresak kudeatzen duen kale-izen-degiak plazaratu berri da. Urtero kaleratzen den argitalpen honetan Udalak ez du xentimorik ordaintzen.

Nekar enpresa da publizitatearen bitartez kale-izen-degiaren argitalpenaz arduratzen dena. Udalak, hala ere, irizpide nagusiak zehaztu ditu.

Aurtengoan herriko gune interesgarrien zerrenda osatu da.

Kale-izen-degiak harrera ona du batez ere kanpotik informazio bila hurbiltzen direnentzat.



**TXIRIBOGA
TABERNA**

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13

ESTETIKA ZENTROA

LOURDES LARRAÑAGA

- Depilazioak
- Aurpegiko tratamendua
- Manikura
- Betileen permanentea eta tintea
- Azaleko garbitasuna
- Makilajea
- Masajeak
- Solariuma

**Irazu kalea, 12-behea
Telf: 943 36 28 87**

Epe laburrera baserririk gabeko eskualdeak ezagutuko ditugu

Euskal Herriko nekazaritzako baserriak, Bizkaian eta Gipuzkoan bereziki, hilzorian eta desagertzeaz daude. Horrela dio Donostialdea eta Bidasoaldean egindako ikerketaren ondorioak. Eskualde horrek hiri ingurunearekiko hurbiltasunaren eragina jasaten du eta, euskal baserriaren inguruko beste ikerketa batzuen arabera, egoera hori Gipuzkoako eskualde guztietan eta, are gehiago, Euskal Autonomia Erkidegoaren alderdi atlantiko osoan berdintsua dela esan daiteke. Beste herriekin alderatuz Usurbilgo egoera egun nahiko ona den arren, epe laburrera baserriaren desagertzea egi bihurtu daiteke.



Gazteenek ez dute inolako interesik nekazaritzako jardueraren lekukoa hartzeko.

Azken bi urte hauetan eginiko ikerketak dioten bezala, Euskal Herriko nekazaritzako baserriak, Bizkaian eta Gipuzkoan bereziki, desagertzeaz daude. Aipatu ikerketako egile Juan Kruz Alberdiren esanetan, "Gipuzkoa osoko eskualdetako egoera oso berdina da, nahiz eta batzuetan eritimoak ezberdinak izan. Goierri, Beterri eta Urola ingurua oso gaizki dago. Egoera kezkagarriena Beterri, Bidasoalde eta Oarsoaldekoa da, Lezoko adibidea oso nabarmena da".

Donostialdean, berriz, Urnieta, Hernani, Lasarte eta Usurbilen egoera nahiko kaxkarra da orokorrean, nahiz eta joera ona duten beste eskualdekin alderatuz.

Galera historiko honen oinarrian, nagusiki, belaunaldi gazteek jardura horrekiko erakusten duten interes urria dago. Ikerketa horretan aztertutako diren kasu gehienetan, gazteenek ez dute inolako interesik erakusten jardura horren lekukoa hartzeko. Belaunaldi berrietan, familiako gazteenetan, baserriko lanerako asmoa eta gogoia balego, ziurtaturik legoke haren jarraipena.

Usurbilen 1996an eginiko azterketaren arabera, baserrietan 550 biztanle bizi da. Hauetatik 228k lan egiten du baserrian, lanaldi osoz, eta 45-74 arteko helduen adin-taldean kokatzen da.

Baserriko lanetan laguntzen dutenen multzo nagusia, 189 biztanle, 15etik 44ra bitarteko gazteek osatzen dute. Baserrian lanik egiten ez dutenak 132 dira, haurrek eta gazteak bereziki. Gaur egun egoerak okerrera egin du.

Leku urbanoen hurbiltasunak eta ekonomiaren globalizazioak nekazaritzaren bazterketa dakarte

Hautura horren zergaitia eskulanaren urritasuna baldin bada, ikerketaren arabera, egoera hori eragiten duten arrazoiak ingurune horretatik kanpo bilatu behar ditugu: nekazaritza eta abeltzaintzako lanen garapen orokorrean, eta hiriak nekazaritzako lurretan eta langileengan duen eraginean. Horrela, leku urbanoen hurbiltasunak eta ekonomiaren globalizazioak jardura horren bazterketa eragiten du.

Merkatu libreko ekonomia globalizatzailearen errealitatean, ustiapen gutxi batzuek asmatu egiten dute globalizatzeko horretara egokitzeko, eta beren errendimenduak hobetzea eta ustiapenak kapitalizatzea lortzen dute. Baina, gehienek ez dituzte beren instalazioak berritzen, nekazaritzako errenta murriztu egiten dute eta, azkenik, jardura bazterrean uzten dute. Eta espezializatzen direnak ekarpen energetikoa kan-

potik ekartzera beharturik daude, gastu aldakorra izugarri areagotuz eta Europako beste ingurune edo herrialde batzuetan baino irabazi gutxiago lortuz.

Alberdiren esanetan, "eredu produktibista baten alde goaz oso garbi. Beste aukerak badaude, baina Europatik inposatu den eredua produktibista eta konpetitiboa da erabat; diru gehiago jarri, gehiago produzitu, eta prezioak gutxitu. Esnearen prezioa gutxitu egiten da, ez baitago beste erremediorik, eta jendea kostu gutxiagorekin produzitzen saiatzen da, etekin gehiago ateratzeko. Hori dela eta, esnearen prezioa berriz gutxitu behar da, eta etorkizunean ere beharakada izango duela aurreikusten da".

Presio urbanistikoari ezin aurre egin

Ingurune hurbileko hiriek, bestalde, geroz eta murriztago egiten dute inguruetako nekazaritza jardura, bi arrazoi medio; batetik, presio urbanistikoa handia delako; eta, bestetik, kaleak lanpostuak sortzen dituelako.

Jun Kruz Alberdiren hitzetan, "presio urbanistikoa oso handia da. Nekazariak ezin ditu lurak erosi eta ustiapena handitzeko arazoak ditu. Izan ere, landa prezioa nekazariak arloko balioan

oinarritu orde, hirigintza esparruko balioan oinarritzen baita. Adibidez, oso adierazgarria da Zubietako kasua. Donostialdeko hazkundera Zubietaldera eramateko asmoa dago. Horrek eragin handia du inguru horretan finkaturik dauden ustiapenetan, haiengan gogo txarra eta egonkortasun eza sortzen baitiete, eta batez ere, beren ekoizpenerako instalazioak ezin dituzte berritu, ondorioz, ustiapenak uzten dituzte”.

Baina, urbanizazio proiektuez gain, bada beste arrazoi bat nekazaritzako eta abeltzaintzako eginkizunak uzteko. Hiriak eta guneko urbanoak lanpostu eta aukera ugari sortzen dute. Hau da, nekazaritza arloko lanak zerikusi gutxi du denbora librearekin. Neke gutxiago eta inbertsio beharrik gabeko etekina eskaintzen duten lanpostuekin, eta lehia horretan nekazaritzako lana izango da beti galtzaile ateratzen dena.

Nekazaritzako lurak eta langileak nabarmen murriztuko dira

Arrazoi hauek guztiak etorkizun hurbil batean nekazaritzarako lurak nahiz esparru horretan aritzen diren langileak nabarmen murriztuko direla adierazten dute. Beraz, ikerketaren ondorioak ikusita, jarraian azalduko dugun egoera izango litzateke nekazaritzaren eta abeltzaintzaren etorkizuna, gordina bezain iluna:

1) Nekazari kopurua gutxitu egingo da, eta bi lan motatan antolatuko da: denbora libreko nekazaritza eta profesionalizazioa. Batetik, jar-

duerarekin jarraitzearen aldekoak daude, lanaldi guztia horretan jardungo dutenak. Estrategia produktibista batean erabat sarturik, horietako askok soldatapeko eskulana kontratatuko dute, pixkanaka familiako laguntza erabat ordezkatzu.

Baina beste askok, inolako helburu ekonomikorik gabe, artalde txiki batzuk, behi edo zaldi batzuk, sagasti txikiak edo kanpoan baratzak batzuk landatuko dituzte. Horixe izango litzateke multzo ugariena, eskualde askotako nekazaritzaren oinarria, nahiz eta epe luzera begira galtzen joango den.

2) Nekazaritzarako ezaugarri eskasena dituzten lurak izango dira jarduera horretan jarraituko dutenak; gainerako lurak hirigintza planetarako erabiliko dira. “Gaur egun ilea hartzen ari zaizkigu. Lur onenak industriadako edo etxebizitzak eraikitzeke erabiltzen dira. Nekazaritzarako maldak uzten dira, mekanizazioarako zailtasunak dituen lurak”. Hori dela eta, nekazaritzarako erabilgarriak diren lurak horretarako erabiltzeari utzitakoan, bertan behera utziko dira, eta sastrakaz eta baso atlantikoak beteko dira.

Instituzioek zeregin handia dute egoera hauek saihesteko, baita gizarteak berak ere. Alberdiren ustez, “gaur egungo diru-laguntza motak aldatu beharko lirateke. Lurra erabiltzeagatik eman behar dira, eta ez hainbeste inbertsioak egiteagatik, traktore edo ikulua jartzeagatik, esate baterako. Nekazaritzak gizarteari egiten dion ekarpenik onenetarikoa ez da adibidez esnea produzitzea, baizik eta paisai berdea mantentzea”.

Begoña Rodrigerez: “Esperantza badugu”

Herriko baserrien etorkizuna ona ez izan arren, Udalak badu egoera honi aurre egiteko plangintzarik. Udaleko nekazaritza-ko teknikari Begoña Rodrigezen esanetan, “baserriaren desagerpena Donostialdean eman bada ere, Usurbilen badugu esperantzarik”. Azken urte hauetan nekazaritzarako egokiak diren lur asko okupatu izan da, industri gunek eraikitzeke bereziki. Hor dugu Atalluren kasua. Hala ere, Begoñaren esanetan, oraindik ere lurrari aprobe- txamendu osoa ateratzeko aukerarik badago herrian, erribera da adibide esanguratsua.

Hurrengo urteei begira, hiru lan-ildo garrantzitsu jorratuko dira; lurraren babesa, sustapena eta dirulaguntzak eta zerbitzuak eskaini, eskaerei erantzunez.

1) Babes mailako lanketa. Orain arauen berrikuskapena egiten ari denez, nekazaritza lurak babestu nahi dira, kontzientziazio lanarekin batera.

2) Sustapen mailan ere, zerbait egin nahi da, zehazki, azoka mailan: Bertako produktuen sustapena bultzatu nahi da. Honetan ari dira lanean, nahiz eta oraindik ez den askorik egin.

3) Dirulaguntzak eta zerbitzuak eskaini: egun badaude tasa eta ur kontsumo mailan dirulaguntzak. Zerbitzu mailan ere, Behemendi Nekazaritza elkartearekin batera, Udalak kuota bat jartzen du. Gainera, teknikaria ere badago. Hala ere, eskaera puntualei ere aurre egiten saiatuko dira.

Baserriaren etorkizuna baldintzatzen duen arrazoi nagusienetarikoa bat, belaunaldi gazteen urritasuna da. Begoña Rodrigezen esanetan, “baserria gazteentzako erakargarria izatea eta lan-baldintza egokiak izatea lortu behar da. Horretarako, baserriko produktuak apreziatzen diren eran, hauek erosteko prest gauden heinean, eta honen inguruan merkatu egokia eratzen badugu, baserri txikiak aurrera ateratzeko gaitasuna izango dute eta baldintza onetan gazteak geratzeko gogoia izango dutela uste du”.



Nekazaritzako lurak industri-guneak eraikitzeke erabiltzen dira: Atalluko kasua dugu.

Sorosle izateko ikastaro interesgarri bat antolatu du DYA elkarteak

Soilik larrialdi egoeretan baloratzen dugu DYAk egiten duen lana. Berta-ko bolondresak sorosle lan ederra egiten dute, baina urkoa laguntzeko ardura deno-na da, ez soilik anbulantzieta-rikusten ditugun lagunak. Lan horren garrantziaz jabetuta, DYAk ikastaro bat antolatu berri du.

Aurtengo ikastaroa laster hasiko da, apirilaren 8an. Iku-sen- tzunezko sistema baten bitartez, sorospen eredu aurre-ratuenak ikasi ahal izango ditu-gu hilaren 30a bitartean. Gaur-kotuak dauden ikasgaiak jaso-ko ditu izena ematen duenak. Honekin batera, praktikak ere egin beharko dira. Ikastaroaren amaieran DYAk luzatzen duen sorospen agiria eskuratuko du



Usurbilgo bolondresak Gipuzkoa osoan DYAk duen anbulantzia osatuenaren aurrean.

izena ematen duenak. Ikasta-roa arratsaldetan egingo da, 19:30etatik 21:00etara. Informa-zio gehiago jaso edota izena eman nahi duenak dei dezala

943 46 46 22 telefono zenbaki-ra. Gogoan izan taldea muga-tua izango dela.



10 urtez usurbildarron zerbitzuan

Abuztuan 10 urte bete Azituen Usurbilgo DYAk, 1991ean finkatu baitzen lan-talde bat. Urte hauetan guztie-tan aipatzekoa da DYAk eskai-ni digun zerbitzua.

Lasarte-Oriarekin batera, DYAkokoak beti prest daude errepideetako istripuak nahiz etxeko urgentziei aurre egite-ko. Horretaz gain, bestelako zerbitzu bereziak ere egiten dituzte: txirrindulari lasterkete-tan, kultur ekitaldietan, kirolde-

gian...

Sei dira lanean diren bolon-dresak eta gauero txandak egiten dituzte. Beraz, lagun hauen lan isilari esker gauero bada gure segurtasunaz ardu-ratzen denik. Asteburuetan ere, goardian izaten dira.

Udalak ematen dien lagun-tza ere eskertu nahi dute. Ohiko dirulaguntzaz gain, egun duten lokala berregokitzeko plana ere onartua dago jada.

Kale Nagusia 100
Tlf. 943 37 33 40
943 37 09 15



Urtinea

Loreak - Lore landareak

Lore sortak - Koroak

San Esteban
Tlf.: 943 36 22 55

**MIKEL
IZAGIRRE**

ELEKTRIZITATEA

Goiz Argi etxea, 37
Kalezar
Telf: 943 36 50 95

LABE-GOXO

Eguraldi onak bat egin zuen Aberri Egunaren ospakizunekin

Martxoaren 31n berritu zen Aberri Eguna ospatzeko ohitura. Honakoan, "Herri bat, nazio bat" lema-pean, udalak bat egin zuen Udalbitzak eginiko deialdiarekin.

Eguraldiak alaitu zuen Aberri Eguna. Agian horregatik gutxi izan ziren ekitaldietara hurbildu ziren lagunak. Balkoitan, ordea, nabaria izan zen jendearen erantzuna. Asko izan ziren ikurriña eskegi zituzten herritarrak.

Ekitaldian ez zuten txalapartariak parte hartu, baina dantzariak ez zuten hutsik egin. Herriko dantza taldeek kideek ikurriña omendu ostean, Mantxi zarauztarrak bi bertso kantatu zituen. Eta azkenik, Agustin Lizaso zinegotziak Udalbiltzak 2002ko Aberri Egunerako prestatutako adierazpena irakurri zuen.

Konpromisoak hartzeko unea dela zioen idatziak: "ospakizun eguna da, baina baita konpromisozkoa ere, euskal gizartearen etorkizuna bakean, justizian eta askatasunean eraiki nahi dugulako".

Eusko Gudariak abestu ondoren amaitu zen 2002ko Aberri Eguna.



Dantzariak ez zuten hutsik egin.



Mantxi bertsolari zarauztarra ere hurbildu zen Aberri Egunaren ospakizunetara.



Agustin Lizasok Udalbiltzak egindako adierazpena irakurri zuen.

XX. mendeko liburuen katalogoa osatu berri du Joan Mari Torrealdaik

1999 eta 2000 urteetako liburuen fitxak bil-tzea baino ez zen falta. Lan hori jada osatu du Joan Mari Torrealdaik eta, bide batez, XX. mendeko euskal liburuen katalogoa osatu du.

1976an hasi zen euskal liburuen fitxak egiten. Orintsu XX. mendeko euskal liburuen katalogoa aurkeztu berri du. Guztira 24.237 tituluren fitxak bildu ditu Torrealdaik.

Liburu honen aurkezpen egunean



eskaintzen ditu bilaketa-aurreratuak.

datu hauek guztiak Interneten direla jakinarazi zen. Noauako lehendakari den Andoni Sagarrena izan da XX. mendeko liburu guztien fitxak sarean ipini dituenak. Jakinen webgunean, www.jakin-gunea.com helbidean, egin daitezke nahi adina kontsulta. Era honetan, mende osoan argitaratu diren euskarazko liburu guztiak buruzko datuak bilatzeko erraztasunak

Lagun ugari Beñat Iriondoren aldeko kontzertuan

Folkore, Hira, Kaotiko eta 4 Itzal taldeek eskainiriko kontzertuan lagun ugari bildu zen. Askatasuna Plazan eginiko kontzertu hau Beñat Iriondoren fidantzari aurre egiteko antolatu zen.



Eskola-agiria lortzeko deialdia zabaldu berri da

Eskola-agiria lortzeko heldutasun-probetarako deia jasotzen du martxoaren 13ko buletinak. 2001eko abenduaren 31 baino lehen hamasei urte beteta izanik eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan matrikulatuta ez daudenek parte hartu ahal izango dute proba hauetan. Beraz, eskola-agiria eskuratu nahi dutenek 2002ko apirilaren 2tik 30era bitartean eman beharko dute izena Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko lurralde ordezkaritzan.

Lasarte-Usurbil Institutuaren oharra

Lasarte-Usurbil Institutuak aditza eman duenez, 2000. urtean batxilerra egin zuten ikasleek eskura dituzte euren tituluak. Agiria eskatu zutenek lehenbailehen jasotzera pasa daitezela eskatu du Institutuak.

Maite Iribar: "Euskara bizitza-eremu guztietara eramane nahi dugu"

Hilabete eskas darama lanean Maite Iribarrek, euskara, kultura eta gazteria teknikariak. Jai-batzordea zela, euskararen aholku batzordea zela... aste lanpetuan hartu genizkion honako hitz hauek. Hasi berria bada ere, gustura dago Usurbilen. Mugimendua bada eta Maiteren ustez, "hori seinale ona da, jende dexente mugitzen delako".

Zeintzuk dira departamenduan zehaztu dituzuen langoak euskararen arloari dagokionez?

Euskararen inguruan egiten diren lanak hiru zutabetan bana daitezke: euskararen ezagutza, erabilera eta hizkuntza beraren elikatzea.

Ezagutzari dagokionez, familiaren, eskolaren eta eskalduntze-alfabetatzearen bidez euskararen ezagutza-maila ziurtatzea herrian.

Euskara esparru guztietara zabaltzeko ahaleginean

Erabilera da bestea. Alor horretan sartuko litzateke udala bera. Udaleko plana, aisialdiko hainbat ekimen, merkataritzako plana.... erabilera bidez euskara normaltasun osoz bizitzako esparru guztietan erabiltzea. Helburua euskara bizitza-eremu guztietara eramatea baita.

Honekin guztiarekin batera,



Urte hasieran ekin zion lan berriari Maitek.

hizkuntza elikatu beharra dago. Gure hizkuntza tresna ezberdinekin hornitu behar dugu. Normaltasunez eta eroso erabiliko bada, euskararen *corpus*-a bera elikatu behar da: liburugintza bidez, aldizkariaren bidez (hor Noaua!k paper garrantzitsua jokatzen du) edota hizkuntza bera ikertuz. Hiru multzo horiek ikusten ditut.

UEMAren barruan egiten den lana ere hor dago.

Garrantzitsua da, halaber, UEMAK jokatzen duen papera. Usurbilgo Udala UEMAn dago, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean. Nire ustez, oso garrantzitsua da Udala UEMAn bertan egiten ari

dena aipatzea. Etengabe gaude UEMAKoekin harremanetan: herriko kuxazainak euskaldundu behar direla, Konekta Zaitetz kanpaina erdara hutsean egiten ari direla... Askotan ate joka ibiltzea tokatzen zaigu.

Zentzu horretan, UEMAn bitartez hainbat ekintza bideratzen dira eta gu ere hor gaude. Maila horretan ekimen dexente egiten dira, kargu hartzera guk bakarrik joan baino UEMAn bidez errazagoa da hau guztia bideratzea.

Eta orain Buruntzaldeko Hitzarmena sinatu berri dugu.

Zertan datza Hernani, Lasarte, Andoain, Astigarraga eta



Beheko kalea. 4
Tel: 943 36 57 42

ALKORTA AUTOZERBITZUA

**FRUTAK
BARAZKIAK
ETXEO PRODUKTUAK
KONGELATUAK**

LATAILLADE

**ITURGINTZA GAS ETA BEROGINTZA
INSTALAKUNTZAK**

ARIZTITXO KALEA, 8 BEHERA
20170 USURBIL

TLF: (943) 36 26 35- 36 33 48
Mobila: 609 888021

Usurbilek hitzarturiko akordio hau?

Hitzarmen honen helburu nagusia euskararen normalizaziorako zenbait egitasmo elkarren artean bideratzea da. Elkarlanaren bidetik, ekimenak aberatsagoak eta sendoagoak izango dira. Udalerrri bakoitzak antzeko egitasmoak ditu martxan hainbat arlotan. Baina lankidetzaren bidez egitasmo horietako batzuk eskualde mailara zabaltzea nahi dira. Giza baliabide eta baliabide materialak hobeto erabiliz, egitasmo asko eraginkorra-

goak eta errentagarriagoak izango dira. Bestalde, badira gai batzuk udal batek bakarrik eragin ezin dituenak. Hitzarmen honek horretarako bidea emango digu.

Udalen autonomia errespetatzen du Buruntzaldeko Hitzarmenak

Dena den, elkarlanean aritu behar badugu ere, hitzarmen honek udalen autonomia ere errespetatu behar du. Mankomunitaterik berez ez dago. Euskara izan da Buruntzaldeko udalak batu dituen lehen gaia. Oraingoz

alor honetara mugatu da Buruntzaldeko hitzarmena.

Hala ere, elkarlan hau zertan hezurmamituko da. Hau da, zein esparru konkretuetan eragin nahi da?

Elkarrekin jarduteko esparru batzuk finkatu dira: familia eta irakaskuntza, hizkuntzaren transmisioan eta ondorengoratzearan eragiteko; kirola, aparteko hitzarmena dugu "Kirola Euskaraz" en; aisialdia; merkataritza; udal barneko planak...

Imanol Ubeda

"Kultura arloan plangintza bat egitea derrigorrezkoa dela uste dut"

Kultur arloaren jaraipena egitea ere bada Maite Iribarren eginbeharra. Horretan ere ari da lanean. Dena den, ezer baino lehen, kultur plangintza bat zehaztea premiazkoa dela aitortu digu.

Euskara eta kultura teknikariaren esanetan, "gauzak ondo egin nahi badira, lehenik kultur diagnosa egin behar da: herriaren kultur errealitatea zein den ezagutu behar dugu".

Hau da, zeintzuk diren jorrazten diren kultur arloak (musika dela, antzerkia dela...). Arlo bakoitzean zein talde ari den lanean. Eta bide batez, agente bakoitzak topatzen dituen hutsuneak eta arazoak ezagutu.

Behin egoera nolakoa den



Udala/herria dikotomia atzean uzteko garaia dela uste du Maitek.

ikusi ondoren, kultur planifikazio bat egingo litzatekeela adierazi digu Maitek: "planifikazioa egiterakoan irizpide nagusi hauek jarraitu beharko lirateke. Batetik, dagoena

babestu. Usurbilen ditugun kultur taldeak babestu eta dituzten arazoak konpontzen ahalegindu. Eta bigarrenik, ez dagoena sortu. Arloren bat hutsik geratzen bazaigu herriko jendearen bidez hori sortzen ahalegindu".

Dena den, udala/herria dikotomia ahaztu behar dugula uste du Maite Iribarren. Udala herria delako eta herria udala: "nire ustez, garrantzitsua da kultur planifikazioa egiteko hasieratik bertatik herriko talde guztien parte-hartzea ziurtatzea. Bai errealitatea aztertzerakoan, hutsuneak eta beharrak atzematerakoan, helburuak jarzterakoan... etorkizuna eraikitzeke guztiok bat egin behar dugula uste dut".



943 83 09 37 ☎ 670 397504



Txoko alde, Tel.: 36 27 13

ZUMETA MENUAK

(Gutxienez 2 lagunentzat)

- Etxeko ahate foie-a aran pasa eta pattarraz
- Itsaski entsalada hozbero trufa zaporez
- Zapoa txangurroz beterik eta itsaski saltsaz
- Aspizuna patata pure, onddo eta piklo piperraz haragi saltsetan
- Etxeko azkenburuko dastapena
- Ogia eta kafea

Prezioa: 3800 pta. (pertsoneko)**P A T R I**

J A T E T X E A
Eguneko bazkariak
eta afariak

Nagusia 6,
Tel.: 943 36 27 25

20170 Usurbil
(Gipuzkoa)

Jai giroan bilduko dira Euskal Herriko herrialde guztietako ordezkariak

Aitzaga Kultur Elkartea eta Nafartarren Lagunen ekimenez, zazpi herrialdeetako ordezkariak bat egingo dute Usurbilen. Helburua, herrialde ezberdinetako ohituren berri izan eta elkar-ezagutzea sustatzea. Egitasmoa gustoko baduzu, jakin ezazu festa apirilaren 21ean egingo dela.

Idea horretatik abiatuta, aber-tzale guztiei zuzenduriko festa antolatu dute. Goizetik hasita, ekitaldi ugari iragarri da. Lehenik, zazpi herrialdeetako ordezkariak ongi etorri beroa egingo zaie. Eta segidan, jaigiroak pilotalekuan izango du jarraipena.

Prestaketa lanak udazkenean hasi zituzten. Ahalegin horri esker, lehen edizio honetan hauek izango dira Usurbilen bat egingo duten euskaltzaleak: Añanako dantzari eta trikitilariak (Araba); Aezkoako irrintzilariak eta Erroibar-



Zazpi herrialdeak batu nahi ditu jai honek.

Aezkoako txistulariak (Nafarroa); Urdiñarbeko Mixel Etxekopare eta Maddi Oihenart abeslariak (Zuberoa); Baigorriko gaiteroak eta atabalariak (Behenafarroa); Urruñako Kuxkuxtu Txaranga (Lapuri); Usurbilgo txalapartari eta Unai eta Beñat Gaztelumen-di bertsolari gazteak (Gipuzkoa) eta Basauriko Sustrai Kultur Taldea (Bizkaia).

EGITARAUA

APIRILAK 21, IGANDEA

11:30etan- herrialdeetako ordezkariak harrera egingo zaie Udarregi Zaharrean.

12:00etan- ekitaldi nagusiaren hasiera pilotalekuan. Txostenaren irakurketa egingo da. Kar-mele Galartza irrintzilariak, Ebaristo Pikabea (Usurbil) eta Anjel Antziburu (Luzaide) bertsolariek hartuko dute parte.

12:30etan- kalejira herrian barrena: Tuterako Peña Beterri-ko joaldunak eta gaiteroak, Baigorriko gaiteroak, Miranda de Ebroko eta Usurbilgo txistulariak, Urdiñarbeko xirulariak eta dantzariak.

14:30etan- zikero jatea.

17:00etan- herrialde guztietako ordezkariaren txanda.

“Elkartasuna... etorkizuna”, aukeratutako lema

Orbel tartetik irtendako sustraiek batuko duen anaikidetza sendotu nahian bilduko gara Usurbilen. Herri zahar honetako zazpi herrialdeetako ordezkariak giza eta kultura harreman sendoa eraikitzeko balio izan behar du. Geure artean gertu bezain urruti betidanik ibili arren, oraingo honetan elkar ezagutzeko parada suerta dadila.

Bazter bakoitzetik etorriak: Arabako Añana haranetik, Nafarroako Aezkoa-Eroibar eta Erriberatik, Bizkaiko Basauri ingurutik, Zuberoako Uriñar-be eta Gotainetik, Behe Nafarroako Baigorritik eta Lapurdiko Urruñatik.

Elkargune honek bidezidor oro atari berera iris-teko balio behar du izan, gure kulturaz herria aberasteko, jendea ezagutzeko, arrotz zaiguna gertuko bilakatzeko, hizkera ezberdinak batzeko. Denok sortu gara herri berean, denok ematen diogu bizia herri berari.

Egun honetako ospakizuna denon oroimenean mezu baikorra uzteko itxaropenez antolatu denez, bakoitzaren ekarpena eta borondatea altxor-kutxan estalia izango da; ardoa bezala kupeletan sartua eta ontzean basotik edateko asmoz.

JOSE AIZPURUA UNANUE

Igeltseritza eta pintura

Teilatuen berritzea



Fatxaden konponketa

Pintore kalea, 1 - 3.A
LASARTE-ORIA
Tel.: 36 17 83

Muna Lurra, 20 - 1.B
USURBIL
Tel.: 943 36 37 67



HERRIKO TABERNA

Astebukaeretan bokatak, plater konbinatuak, pintxo beroak...

Tel. 943 36 02 17





Hastera doa UGAk antolatzen duen Futbito Txapelketa

Aurreko bi edizioetan izan-adako arrakasta errepikatzeko gogoz antolatu dute Usurbilgo Gazte Asanbladakoek Futbito Txapelketa, aurtengoarekin hirugarrena.

Guztira 30 taldek hartuko dute parte aurtengo edizioan. Aitzaga, Txiriboga, Sagasti, Txurrut, Irrati eta Gaztetxean bertan zabaldu ziren izena-emateko orriak. Martxoaren 22an amaitu zen izena emateko epea.

Egun horretan bertan egin zen txapelketaren egutegia. Lehen jardunaldia apirilaren 5ean egingo da eta partidak arratsaldeko

19:00etan hasiko dira.

14 urtez gorako txapelketan hauek dira izena eman dutenak: Txiriboga, Furgo, Beti-Alai, Aitua, Aldabaldabarra, Peio Gameilu, Txikilino, Kertenak, Makalak, Txoriori, Ama 4, Aiaola Garraioak, Bagitxiestik, AC Urrutxurtus, Irrati, NPI, Judo Team, Muruma eta Akerra FK.

14 urte azpikoen artean, hauek dira txapelaren bila arituko diren taldeak: Sorginak, Euskadi, Nafarroa Oinez 2002, Instein, Taratara-ttaratata, Txikilino, Mahka SA, Benta, ATPC eta Patri.

Finala Santixabeletan jokatu da.

► Kopa txapelketan aurrera doaz Usurbil FT taldeko neskek

Senior mailako neska taldea gogoz ari da Kopan. Martxoaren erdialdean hasi zen txapelketa eta lehen norgehiagoka eurentzat izan zen, Ostadar taldea ez baitzen partidara azaldu. Aste Santua amaitu bada ere, beste aste bateko atsedena izango dute Imanol Bereziartuaren neskek. Apirilaren 14an ez dute jolastuko baina 21ean Asti-Txiki zelaian Zarautz KE taldekoak izango dituzte aurrean.

Gogoan izan Liga dagoneko amaitu dela eta Kopa dela Usurbil FT taldearen ilusio nagusia.

Kanporaketak maiatzaren 19an amaituko dira eta finalerdiak 26an egingo dira. Finala, berriz, ekainaren 2an.

► Oiardon jokatu dute Unai Latailladek eta bere taldekideak

Aurreko zenbaki batean iragarri genuen moduan, Unai Lataillade Zilarrezko Mailan ari da jolasten, Cepilleria Aker Ibarra FS areto-futbol taldean.

Bada, apirilaren 6an herrian bertan jokatu du, Oiardo Kiroldegian arratsaldeko 18:30etan hasita. Ibarako kiroldegia konpontzen ari direnez, Ibarakoak Usurbilera etorriko dira Perfiles Sintalen aurkako ligako partida jokatzera.

Aginagako frontoiko eraikitze-lanak bide onetik doaz

Aginagako Ariztitxo Pilotalekua eta Plaza eraikitze-lanak aurrera doaz. Dagoneko jakina denez, Udalak hartu zuen bere gain sustatzaile izateko ardura.

Lan ezberdinak gauzatzeko eskaintza hoberena lortzeko asmoz, obraren lan-multzo bakoitza banan bana esleitu edo adjudikatuko da. Saneamendu, zimendatze eta egitura lanak Antzibar SA enpresari esleitzea erabaki du udalak.

Halaber, beste lan batzuk ere esleitzeko bidean dira: igogailuaren instalazioa; beirategi lanak;



San Praixkutarako amaitu nahi dira lanak.

aireztapen instalazioak; eskaio-lazko sasi-sabaien lanak; iturgintza eta komun ontzien lanak; igel-tseritza, zoladurak eta isolamendu lanak; eta estaldura metaliko-

GALARRA GARRAIO

* LUR ONGARRIAK
* ZABOR BILKETA
* ZISTERNA BEREZIAK

☎ 37 01 46

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

Zer diyo?



Labrit Zabala Kasasola


☐ Musikaria.

☐ 24 urte.

Elkarrizketa baten ondorena

Ereñozu aldeko harrizko borda txiki batean aurkitzen naiz, Akila mendian hain zuzen. Gaua da. Eta tximiniko suaren beroak gaueko hotza ozta-ozta berotzen du.

Suari begira, nire irudimena hegan doa, nolabait ere, nire barrua asetzearen, eta txoko xume honetan idazten hasia naiz jada.

Duela 24 urte jaio nintzen, Usurbil izeneko herrixka eder honetan eta urteak pasa ahala, pertsonak eta gauzak gertutik ikusi izan ditut. Lehengo egunean lagun batekin berriketan aritu nintzen luzaroan, gai asko sakontzen, nolabait esateko, mundua aldatu nahian.

Ez da erraza, amets bat bihurtzen baita azkenean, baina denborak aurrera egin ahala, beste gazte belaunaldi indartsu batek lekukoa hartzen du eta gu geu ordurako ahazturik, honela esango diegu: "Ai!! gazte hauek beti mundua aldatu nahian!!". Gure solasaldiko gai honen konklusioa berehala etorri zen: bakoitzak bere bizitzari ekitea besterik ez zai-gula geratzen, aitortuz, halaber, bizitza bera geure bizimoduaren arabera moldatu beharra daukagula.

Aske sentitu nahi dugula esaten dugu gehienetan, baina ez ote dugu guk geuk, geure kaiolaren atea ixten sarritan? Alegia, bizitza zaila egiten zaigu (gizarteko hainbat aspektuetan erreparatuz) eta besteena konpontzen saiatzen

gara denbora nahikoan. Agian inbidiak edo geure barneko maltzurkeriak edota gustora bizi ez garelako jokatzeko dugu horrela; baina, ez al litzateke hobea izango, elkarri harriak botatzen aritzea baino, elkar laguntzea? Zenbat urte igaro behar dute askatasun hori lortzeko? Zer da aske sentitzea?

Beste pertsonen gogobetetze nahiak ez du ezertarako balio gu geu ez bagara asetzen. Ez du zentzurik, gu geu ez bagara maite.

Maitasuna, laguntasuna, oro har, eguneroko bizitzaren oinarria izan beharko lukete; eta ze handia litzakeen geure bihotzak daukana baino gehiago behar ez duenean.

Egiazale izanik, geure izaera biluzteko edota pentsatzen duguna aitortzeko, beldurak ez luke lekurik. Armoniak geure barrena baretuko du eta, era berean, denok sentituko dugu lasaitasuna edo tristura, geure bihotzean egia entzutean.

Badakit, zoritxarrez, berekoi xamar izan beharra dagoela garai hauetan... baina, inori kalterik egin gabe, arren!

Hau guztia da elkarrizketa xume batetik atera genituen hainbat ondorio. Agian, bihar aipatutako guztia uskeria bat dela nabaritutako dut, baina, nolanahi ere, noizbat sentitu dudala jakin behar edo jakingo dut.

HAUR JANTZIAK



Kale Nagusia, 2 Tel. 943 36 59 43



Igandetan ganba-ziri mundialak!

ARRAINDEGIA
PELLOArizeta Kalea, 1
Tf 36 21 64
USURBIL

Lehiaketa



Zer objektu da honako irudian zatituta agertzen dena?

Saria:

Imanol Murua eta Humberto Unzueta
“Suetena Belfasten” liburua.

132. aleko erantzuna



Aurreko zenbakian honako hau galdetu genuen:

Nola du izena agerian azaltzen den baserriak?
Erantzun egokia:
Agerrazpi


Irabazlea

Maria Otaegi Zabaleta

Saria

Auzoetako posterrak eta Noaua!ko bi kamiseta

Gurutzegrama



Ezker eskuin

1. Zubietako Herri Batzarraren udaletxea. **2.** Jakina, bai horixe. Japoniako sumendi aktiboa. **3.** Hark hiri zerbait ekarri... (toka). Alfabetoko azken letra. Ilea motz-motz daramaten talde sozialeko kide. **4.** Bizkaieraz, madarikatu. Iodoaren ikurra. **5.** Tantaloren ikurra. Azukre-kanaberatik lortutako edari alkoholikoa. Iparraldeko talde armatua. **6.** Berrito, azkenekoa. Tuterako udalerri nafarra. **7.** Txiki-kierdiko industrialdea. **8.** Uranioaren ikurra. Afrikako Liberia errepublikaren laburdura. Alor, sail, atal. **9.** Mendi txiki. **10.** Euskal Herriko diskoetxe ezaguna. Aurreko urtean. Oria ibaiaren altxorra.

Goitik behera

1. Herriko mendirik altuena. Musika-nota. **2.** Frantziako ibairik luzeena. Egiptoko hiria, Mediterraneoa eta Itsaso Gorria lotzen dituen izen bereko kandalaren irteeran kokatua. **3.** Abereei janaria jartzen zaien ontzia. Kanpo, landa. Nitrogenoaren ikurra. **4.** Mazedonia estatuaren laburdura. Herriko presa handiena. **5.** Aizkoran egiten duena. **6.** Berrito Nitrogenoaren ikurra. Anis-belarraren hazi. Hegoafrikako Swazilandia estatuaren laburdura. **7.** Janari probatuak. **8.** Besaurrearen ondoren datorren gorputz zati. Suitzako hiria, Aare ibaiaren ertzean kokatua. **9.** Behe ez dagoena. Hotzik edo soinurik gabe gertatzen dena. Roentgenaren ikurra. **10.** Bat. Neuk. Zein modutan, zein eratan.

Goitik behera: 1. Andorra, 2. Liria, 3. Aizkor, 4. Miki, 5. Aizkor, 6. N. Anis, 7. Aizkor, 8. Esku, 9. Aizkor, 10. N. Niki, Nola.
Ezker-eskuin: 1. Aizkor, 2. Niki, 3. Aizkor, 4. Aizkor, 5. Aizkor, 6. N. Anis, 7. Aizkor, 8. Esku, 9. Aizkor, 10. N. Niki, Nola.

Soluzioa:

A genda

APIRILAK 7 igandea

- Andazpe elkarteko asanblada eta bazkaria.

APIRILAK 8 astelehena

- Euskal presoak Euskal Herriratzeko eskatuz enkatelada 20.00etan.

APIRILAK 15 astelehena

- Euskal presoak Euskal Herriratzeko eskatuz enkatelada 20.00etan.

APIRILAK 21 igandea

- "Elkartasuna... etorkizuna" izeneko festa Usurbilen. 11:30etan hasiera-ekitaldia Udarregi Zaharrean. 12:00etan ekitaldi nagusia pilotalekuan. 12:30etan kalejira herrian barrena. 14:30etan zikiro jatea. 17:00etan herrialde guztietako ordezkarien txanda.

👉 GARAJEAK

- 🔧 Munalurran garaje bateko marra salgai. Telf. 943 362424
- 🔧 Motoak sartzeko lokala alokatzen da. Gazteentzako txoko bat alokatzen da. Telf. 656 759 583.
- 🔧 Yamaha XJ 600 motoa salgai. 225.000 pezeta. Telf. 943 366222.
- 🔧 Garaje itxia salgai Etxealdian. 943 373185 telefonora deitu.
- 🔧 Garaje itxia salgai Etxealdian. Interesatuak deitu 943 373185 telefonora.
- 🔧 Etxe bat alokatuko nuke. Beste batekin konpartitzeko prest nago. 626 680 915.
- 🔧 Galtzaragaina elkartean bi garaje itxi daude salgai. Inork nahi badu dei dezala telefono zenbaki honetara: 943 360 273 (Javier).
- 🔧 Garaje itxia salgai Etxe-zurian (herri sarreran). Tarteko oina eta ate automatikoak ditu. Prezio onean; 2.200.000 pzta. Telf: 687 40 62 09

👉 ETXEBIZITZAK

- 🔧 Usurbilen pisu bat osatzeko jende bila nabil. Deitu 943 793147 edo 617788538 telefonoetara.
- 🔧 Alokairuan dagoen pisua edo apartamendua hartuko nuke. Telf. 943 364469
- 🔧 Pisu bat dut salgai. Deitu 13.00etatik 15.00etara edo 20.00etatik aurrera 943 372983 telefonora (M^a Angeles)
- 🔧 Baju edo ganbara bat erosiko nuke. Telefono zenbakia: 943 36 02 13. Deitu iluntzean.

- 🔧 Usurbilen gela baten bila nabil, lo egiteko bakarrik. Lekurik baduzu dei iezadazu telefono zenbaki honetara: 653 011 842.

👉 LAN-ESKAERAK

- 🔧 Neska bat eskaintzen da arratsaldetan ordu pare batez haurrak zaintzeko. Interesatuak deitu 943 366485 telefonora.
- 🔧 Emakume bat eskaintzen da astean hiru egunetan, goizez lau edo bost orduz lan egiteko. Interesatuak deitu 943 36 43 10.
- 🔧 Emakume bat eskaintzen da, goizeko 9:00etatik eta 14:00etara ostalaritza edo etxeko lanetarako, derrigorrezkoa da gizarte segurantzaz. Interesatuak deitu 943 36 43 40 telefonora.
- 🔧 Pertsona bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, umeak zaintzeko edota 3. adinako pertsonak zaintzeko. Itel: 647 220 966.

👉 LAN-ESKAINTZAK

- 🔧 Udarregi ikastolan eskola kiroleko monitoreak behar dira. Deitu 943361216 edo 943370645 telefonotara.

👉 BESTELAKOAK

- 🔧 Neoprenozko traje bat dut salgai. Rip Curl marka eta L taila. Prezio interesgarria. Telf. 653728059.
- 🔧 Edozein ohetarako balio duen erabilbi gabe dagoen trapezio bat salgai. Deitu 943 835441 telefonora (Begoña).
- 🔧 Abenduaren 2an, igande goiza, jertsea galdu nuen (urdira marra zurikin). Norbaitek aurkitu badu deitu mesedez 943 37 19 75 telefonora. Gauzez deitu.
- 🔧 Belarritako bat galdu dut, urrezkoa eta perlitak bat du. Bilatzen duenak deitu dezala 943 362 088 telefono zenbakira.
- 🔧 Erloju bat ekarri dute Noauara. Beraz, norbaitek bere erlojua galdu badu, etorri gure egoitzara, ea hemen daukaguna den ikustera.
- 🔧 Bigarren eskuko soinu txikia erosiko nuke, 120 bajukoa. Telefonoa: 943 37 03 59.
- 🔧 Opel Corsa bat salgai, SS-AL. 300.000 pezetan, kuota eta transferentzia barne. 943 37 26 92.
- 🔧 Ford Escort Ghia TD familiarra salgai. SS-BB, CD ekipoduna. Telefonoak: 657 796 777 / 943 37 19 54.

KIROL EMAITZAK

Martxoak 16/17

FUTBOLA

Usurbil FT - Ostadar*

(Eskualde Maila, E)

Udarregi 3 - Laskorain 3

(Infantilak, G)

ESKUBALOIA

Ormaiztegi 24 - **Usurbil KE 20**

(2. Nazionala, G)

Jardunaldirik ez

(2. Nazionala, E)

Arrate Txiki 21 - **Usurbil KE 18**

(Jubenilak, G)

ARETO-FUTBOLA

Ramon Vizcaino B 2- **Txotx 2**

(Bigarren Maila B, G)

*Ostadarrekoak ez ziren azaldu, garaipena Usurbil FTrentzat 3-0ko emaitzarekin.

HONDARTZA-FUTBOLA

Martxoak 17- Donostikussen 1- **Aginaga Sagardotegia 9.**

Martxoak 19- Aginaga Sagardo. 4- TodoMaletas.com 1.

* G: Gizonezkoak / E: Emakumezkoak.

Oharrak:

📌 Giltza batzuk ekarri dituzte Noaua!ko bulegora. "Uxo" izena ageri da giltzarian.

📌 Agendarako oharrak doan hartzen ditugu. Idatzia-ri, izen-abizenak eta telefono zenbakia erantsi.

Postaz:

Bordaberri 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil.

E-mailez:

noaua.k.e@euskalnet.net

Azaldu zaitez Noaua!ko batzar orokorrera



Dagoeneko seigarren urtea bete du Noaua! Kultur Elkar-teak. Aurtengoan, beraz, VI. Batzar Orokorra izango dugu. Bertan 2001. urteak utzi diguna ikusi eta 2002ko plangintza finkatu behar dugu eta, horretarako, ezinbestekoa zaigu bazkide guztien partehartzea. Izan ere, duela sei urte elkarrekin hasi genuen bide hau eta aurrera begira ere, bidelagun izan nahi zaituztegu.

Beraz, badakizue noiz eta non garen elkartzekoak. Apirilaren 6an ikusiko dugu elkar, bitartean, ondo bizi!

✕ EGUNA: Apirilak 6

✕ ORDUA: goizeko 10:30etan

✕ LEKUA: Udaletxeko pleno aretoan

Inkestak betetzeko azken egunak, aprobeitza itzazu!

Batzar Orokorraren eto-rarrerarekin batera, aldizkariari eta kultur elkarteari buruz banatu genizkizuen galdetegiak bete-tzeko epea amaitu da.

Hamaboskariaren kalitatea hobetzea da gure helburua. Hori dela eta, datozen hilabeteotan egin nahi ditugun aldaketei begira, aldizkariari buruz duzun iritzia jaso nahi dugu. Horretarako, inkesta bat prestatu genuen, aldizkariarekin batera banatu genizuen, zuen proposamenak, iradokizunak eta kritikak ezagutu asmoz. Era berean, bazkideoi eskutitzez kultur elkarteari buruzko galdetegi bat igorri genizuen.

Orain arteko ibilbidean geldiene txiki bat egin, zuen ekarpenak jasotzeko asmoz.

Beraz, oraindik zure iritzia emateko betarik baduzu, ez hutsik egin. Bi galdetegiak eskuratu nahi badituzu, Noaua!n baditugu oraindik.



► **Azken pezetak eta lehen euroak euskararen alde!**

Pasa den abenduan "Azken pezetak/liberak eta lehen euroak euskararen alde" mezuarekin dirua biltzeko kanpaina abian jarri zuen Kontseiluak bere egitasmoak aurrera atera ahal izateko. Dirua biltzeko kanpaina honi bere amaiera iritsi zaio.

Kanpaina hau herrian aurrera atera zedin Noaua! Kultur Elkartea, Etumeta Euskaltegia, Dantza Eskola, Usurbilgo Gazte Asanblada eta Uurbilgo Udala aritu da lanean. Baina, lan garrantzitsuen herriko denda eta tabernak egin dute. Izan ere, bertan utzi baikenituen itsulapikoak eta beraien laguntzarik gabe nekez lortuko genuen xoxarik euskararen alde.


Beraz, biziki estimatzen dugu edin duzuen ahalegina eta espero dugu zuentzat ere pozgarria izan dela euskararen aldeko ekimen honetan parte hartu izana.



Momentu honetan 525 bazkidek osatzen dute Noaua! Kultur Elkartea
ZU ERE EGIN ZAITEZ BAZKIDE!

Noaqua!!

aldizkaria bultzatuz



Noaqua!!

BAZKIDIE TXARTILEK
5.000 PEZETAK URTE OSORAKO **Noaqua!!**

Izena: _____
1. Abizen: _____
2. Abizen: _____
Helbidea: _____
Hiria: _____
Finantza: _____
Kontu-kartontea (20 digitu): _____